

BALIO PROPOSAMENA

Prestakuntza sakonagoa lortzeko baliabideak ematen dituen sare sozial bat da. Betidanik, institutuetan edo edozein titulua prestatzeko zentroetan eskaintzen dituzten baliabideak nahikoak ez direnez, etxean informazio gehiago eskuratu nahi dute ikasleek. Ikasleei egin behar duten lan extra hori errezteko, sare sozial hau sortzea bururatu zaigu.

Horrez gain, gure gizartearen kultura hobetzeko aukera ona iruditzen zaigu. Gazteen artean batez ere oso zabaldua dago sare sozialen erabilera eta honek aislamendua eta ezjankitasuna eragiten du. Horren bidez, gazteen intereseko gaiak lantzen dira modu errez, arin eta eraginkorrean.

Nahiz eta interneten apunteen web-orriak egon; hala nola, "el rincón del vago" edo "Wuolah" bezalakoak, gure proiektuak horiekiko desberdintasun asko izango ditu eta, gainera, halako web-orriak eskaintzen ez dituzten aukerak ere emango dizkio erabiltzaileari.